

Beste elkartasun kanpaina batzuk

Elikadura arloko elkartasunaz gain, beste kanpaina batzuk ere egiten ditugu: gizarte egoera ahulean dauden kolektiboak laguntzen diegu, eta ingurumenaren

aldeko konpromisoa sustatzen dugu kontsumo ohituren bitartez baliabide naturalak zainduta.

FORUM SPORT kirol materialaren dohaintzak

FORUM SPORTetik 179 oinetako pare eman dizkiogu Bizkaiko Gurutze Gorriari, bere proiektuen barruan zaurgarritasunean direnen artean banatzeko. Horrez gain, 2018an, 8.943 kiloren kirol materiala eman diogu Kooperari, 22.219 euroko balioa zuena. Caritasen erabiltzaileei eta Kooperaren dendei eman diegu material hori, bigarren eskuko objektu gisa, edo birziklatzera eta balorizazio energetikoa egitera bideratu dugu, zabor gisa behar bezala kudeatua izateko.

VEGALSA-EROSKIren errezeta liburua Gurutze Gorriaren alde

Plater osasungarriak merke prestatzeko errezeta bilduma baten 15.000 ale salduta (*Hoy como en casa: recetas saludables y económicas elaboradas por los mejores chefs de Galicia*), 30.000 euro bildu ditugu, eta Gurutze Gorriak gizarteratzeko proiektuetarako erabiliko du Galizian. Bi entitateen lankidetzak ekimen horretan 20 galiziar sukaldarik parte hartu dute, eta Galiziako Autonomia Erkidegoko Autoservicios Familiar, EROSKI hipermerkatuetan eta EROSKI Center supermerkatuetan gauzatu dute.

Larrialdi kanpaina Mallorcako uholdeengatik

Mallorcako Sant Llorenç udalerriko uholde izugarriak direla eta, Espainia mailako elkartasun kanpaina bat egin genuen, eta 140.000 euro batu genituen EROSKIren eta haren bezeroen elkartasunari eskerrak. Dirua Sant Llorençeko agintarien bitartez bideratu da, eta osorik joan da uholdeen ondorioak jasan dituzten familietara.

Familiei laguntzea

EROSKI familia ugariari laguntzeko lankidetzak hitzarmenak ditu hainbat erakunderekin, hala nola HIRUKI-Derekin, Fanoc-ekin eta Familia XLrekin. Gainera, 2012az geroztik, CAPRABOn, familia horien premia berezien jakinararen gainean, abantaila bereziak eskaintzen ditugu "Oro" bezeroaren izaeraren (eta Mi Club CAPRABO "Oro" txartelaren) bidez eta haren onura gehigarri guztien bidez. Orobat, familia horiek euren erosketen %5 eurotan jasotzeko abantaila dute; zenbateko hori txartelaren saldoan sartzen da. Hala, 2018an, **13.292 familia ugariak 804.694 euro aurreztu dituzte.**

Horrez gain, badago familiei laguntzeko beste programa bat: "Ongi etorri, haurtxoa". Iaz, programa horretan, **1.358.000 saskitxo eman genituen**, baita haurtxoaren lehen urtean beharrezkoak diren produktuak lortzeko deskontuak eta promozioak ere. Programa hori osatzeko, "Ongi etorri, emagina" *on line* tresna dago. Haren bidez, gurasoek erantzun guztiak aurkituko dituzte haurdun-

dian, erditzean eta haurtxoaren lehen urteetan sor daitezkeen galderak eta zalantzak argitzeko. Ekimen horrek zenbait talderen laguntza izan du, hala nola Emaginen Elkartearen Espainiako Federazioa, Espainiako Emaginen Elkarte eta J. Mateu Sancho pediatra. Dagoeneko, 120.505 pertsonak bisitatu dute webgunea, eta 358.175 web-orri ikusi dituzte.

VEGALSA-EROSKI, familiei laguntzeko beste pauso bat eman dugu, 2016an Galiziako Xuntaren "Tarjeta Benvida" programara atxikita. Horri esker, Galiziako EROSKI Center eta Familia establezimenduen eta EROSKI hipermerkatuen sarean erosketak egitean txartela aurkezten duten pertsonak %2,5eko zuzeneko deskontua dute. 2018an, 59.168 euro transferitu zaizkie familiei ekimen horren bitartez.